

JARDUERA ➤ [Klikatu hemen](#) aurretik irakurri duzunaren eta hurrengo orrietan irakurriko duzunari buruzko laburpenaren bideoa ikusteko.

Nola zegoen antolatuta gizartea?

Hispaniako biztanleak bi taldetan bereizten ziren:

- **Pertsona libreak:** Pertsona libreen artean, patrizioak eta plebeioak bereizten ziren. **Patrizioak** oso gizon-emakume **aberatsak** ziren; **plebeioak**, berriz, biztanleriaren **gehiengoa** ziren, eta eskulangintzan, merkataritzan edo landan egiten zuten lan.

- **Esklaboak:** Beste pertsona baten jabetzakoak ziren, eta ez zuten eskubiderik. Haien bizia beren jabeen eskuetan zegoen, eta ez zuten ondasunik. Etxeko lanetan, soroetan, meatzeetan edo gladiadore gisa egiten zuten lan.



- * **Emakumeak:** Pertsona libreak ziren, baina aitaren tutoretzapean zeuden; eta ezkontzean, senarraren tutoretzapean. Eskubidea zuten jabetzak izateko, negozioetako zuzendari izateko, eta jai eta ikuskizunetan parte hartzeko. Bestalde, emakume askok gogor egiten zuten lan soroetan edo saltokietan.

Bizimodua hirietan eta landa-eremuetan

Erromatarrek hiriak sortu zituzten Hispanian, eta haietan, Erromako ohiturak imitatzen zituzten. Baina biztanle gehienak landa-eremuetan bizi ziren, eta nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen ziren.

HIRIAK	LANDA-EREMUAK
• Harresiz inguratuta zeuden. Kale zuzenak zituzten, eta plaza nagusi bat: foroa. Foroan zeuden eraikin garrantzitsuenak.	• Erromatar aberatsenek lursail handiak zituzten, eta haietan, laborantzarako lurrak. Lursail horien barruan landetxe handi bat izaten zuten, villa eta han bizi ziren jabeak. • Nekazariak eta esklaboak lursailak lantzen zituzten. Oso lan gogorra zen, baina bazituzten makinak ere lana errazteko.

Hirietako etxebizitzak

Erromatar hirietan bi etxe mota zeuden, **domus eta insulae** deituak.

- **Domusak familia bakarreko etxebizitzak** ziren, eta pertsona **aberatsenak** bizi ziren haietan.

Etxebizitzaren erdialdean patio bat zegoen. Patioaren inguruan antolatzen ziren gelak. Patioaren erdian euri-ura jasotzeko harraska bat izaten zuten. Lorategi handi bat ere izaten zuten.

- **Jende xumea**, berriz, **insulae** izeneko etxeetan bizi zen. **Zenbait solairutako eraikinak** ziren, eta etxebizitzak txikiak ziren. Beheko solairuan, dendak egoten ziren. Zurez eta kalitate eskaseko materialez egiten zituzten, eta horregatik, sute asko izaten ziren.



DOMUSA



INSULAE

Honela janzten ziren

Gizon-emakumeen ohiko jantzia tunika zen, eta oinetan, larruzko sandaliak zeramatzen.

Emakumeek stola

izeneko tunika bat janzten zuten. Stolarek gainetik **xal** bat janzten zuten. Batzuetan, **belo** bat jartzen zuten buruan.



Gizonek belaunetaraino

iristen zitzaien tunika bat janzten zuten. Hiritar aberatsek **toga** izeneko mantu bat janzten zuten tunikaren gainetik.

Nola ikasten zuten?

Hispanian, hezkuntza ez zen derrigorrezkoa. Oro har, ez zegoen eskolarik, eta familiek ordaintzen zieten maisuei. Horregatik, biztanleriaren zati batek soilik ikasten zuen: ordaintzeko aukera zutenek, alegia. Maisuek beren etxeetan hartzen zituzten ikasleak.

Maisuek **irakurketa**, **idazketa** eta **kalkulua** irakasten zituzten. Bestalde, **musika** eta **gimnasia** oso garrantzitsuak ziren hezkuntzan.

